

Martin Iturbe idazlea

Euskaldunon Egunkaria, 1992-02-19: 2.

Bolibar venezolarrak Askatasun borrokaren etorkizunaz etsita zegoen batean "Itsasoan aritu naiz goldaketan" idatzi zuen, egindakoa alferrikakoa izan zela adierazteko. Don Martin Iturbek, berriz, argitaratu egin ditu lurrian eta itsasoan ereindakoak fruitu eder bezala agertu berria den bere *Zelai ezberdinetan amets oihu berdinkatuak* izeneko azken liburuan. Aise eta ongi landu ditu, gainera, lehorreko nekazariarenak bere apezgoako portuan somatu dituen itsas-uretakoekin batera. Bi mundu direnak elkarrekin jarri ditu. Bat lehorra, tinkoa, bestea bustia eta mugikorra, euskaldun beraren etxeko bi bizitzak baitliran. Egilea bera Ikaztegieta jaio eta apezgoko lehen hamabi urte Alegian egin baditu ere, hogei urte paseak dira honeratu eta hemengo egin zela, beste asko egin garen antzera. Eta gaur apaiz eta poeta bezala maite dugu lehorretik itsasora jaitsi zitzaigun gizon eta apaiz jator izatez gain idazle fin den Don Martin Iturbe Balda. Honek ez du batetik bestera pasatzeko pausoz aldatu, Herria eta Eliza bereko lanean ari da han eta hemen, lehen eta orain, eta bidez poesia idazten. Bereiztasun batekin, lehengoa idorragoa (ez eiarragoa!), neurtua irteten zitziola, bertsogintzaren legez, eta orain, berriz, askatasunean bustiak, hitzaz zabalera irekiagoak eta errima gabe, baina poesiaz bete-beteak hauek ere. Bietakoak irabazi dituzte sariak. Eta irabaziko oraindik, gaztea bait da, eta langilea. Neuk presaka ikusten dut, elizkizunen eta gaixoen hainbeste ardurak hartuta bait dabil beti, eta beti irripartsu. Nerori ameslari naizenez gero, pentsatzen dut sarri Don Martin bertso punta baten errima aurkitu berrian doala kalean barna.